



Villabonako Santiago egoitzako langileek greba mugagabea egingo dute

ARRAZOIAK ▶ «Lan-itunaren
negoiazioan adostutakoa ez
betetzea» salatu dute langileek

HASIERA ▶ Hilaren 29an hasiko
litzateke protesta eta «akordioak
sinatu arte» iraungo luke ▶ 4

TOLOSA ▶

83-60ko
garaipena
lortu du
Tolosa
Aralarrek

Hurrengo partida
Calahorraren aurka
jokatuko dute ▶ 3



Tolosa futbol taldea fisikoki ondo baina trabatuta dagoela dio Mendizabalek

TOLOSA ▶ 0-1 galdu zuen larunbatean Tolosak Santurtziren
aurka. 19 punturekin 15. postuan dira tolosarrak, jaitsieratik 4
puntura. Mendizabal entrenatzailearen esanetan, «talde lanari
ematen diogu garrantzia, hau da, jokalariekin egoteari». E. E. ▶ 2

IMANOL ALTUNA ▶
ERREMONTISTA

«Ez genuen
maila eman;
haiek izugarri
jokatu zuten»

«Zapore garratza»
utzi dio finalak baina
aurrera begiratu
beharra dagoela dio ▶ 5



Imanol Altuna. I. T.

LEITZA ▶

Sasoi betean dagoela
erakutsi du Aurrerak
3-0 irabazi ostean

Igoera faseko partidak irabazi ditu ▶ 7

TOLOSA ▶ KIROLAK

0-1 galdu du etxean Tolosak Santurtziren aurkako partiduan

Zuzendaritzak hartutako erabaki baten ondoren, Kepa Mendizabal da orain Tolosako entrenatzaile berria

ESTI EZEIZA

Santurtziren aurka jokatu zuen larunbatean Tolosak eta urdinek 0 eta 1eko emaitzarekin galdu zuten etxean. Partidaren

lehen zatian nabarmen nagusitu ziren bizkaitarrak, baina gero, hobeto jolasten hasi ziren Tolosakoak. Lau aukera garbi izan zituzten urdinek, baina hauetan ez zuten asmatu eta

hutsekoarekin geratu behar izan zuten. 70. minutuan gol bat sartu zieten Santurtzikoek, eta bigarren zatian urdinak hobeto aritu baziren ere, aurkariak erdietsi zuten garaipena.

Datorren partida Zallaren aurka jokatu dute eskualdekoek, hau igandean izango da, 19:00etan, eta oraingoan kanpoan jokatu dute. Bizkaitar hauek sailkapeneko bigarren postuan daude eta Kepa Mendizabal entrenatzailearen esanetan «partida zaila izango da igandekoa». Dena den, gogotsu eta eskuak jaitsi gabe joango direla adierazi du Mendizabalek, «postu delikatu» baitaude eta hortik ateratzea lortu beharra daukate.

Asteburuko jardunaldien ondoren, 15. postuan da orain Tolosa, 19 punturekin eta jaitseratik lau puntura. Beraz, garrantzitsua da urdinentzat hurrengo partida hau irabaztea, batez ere jokalariei morala igo-

tzeko. Lehenengo postuan Gernika dago 36 punturekin, honen ondoren Zalla, hau ere 36rekin, eta hirugarren Portugalete, bat gutxiagorekin.

Entrenatzaile berria

Gorka Etxeberria izan da orain gutxi arte Tolosako entrenatzailea, baina zuzendaritzak hartutako erabaki baten ondorioz, honek bere lana utzi behar izan du erreleboa beste bati pasaz. Orain, Kepa Mendizabal ari da Justo Lillorekin batera jokalariek prestatzen.

Dagoeneko hiru partidatan egon da Mendizabal. Hauetatik lehenengoa irabazi egin zuten, baina ondorengo bietan ez dute garaipenik lortu.

KEPA MENDIZABAL ▶ TOLOSAKO ENTRENATZAILEA

«Fisikoki ondo daude, baina egoera ez da ona; trabatuta gaude»

Gorka Etxeberriaren erreleboa hartu du Kepa Mendizabalek, eta bi urte taldetik a izan ostean berriro entrenatzen hasi nahi nuen, eta ezin izan nuen.

Nolatan itzuli zara berriro futbolera?

Joan den urteko denboraldiaren amaieran esan zidaten ea berriro entrenatzen hasi nahi nuen, baina lanarekin eta arazoak nituen, eta ezin izan nuen. Gero utzi egin nuen eta lanez aldatu nintzen, hala, ia libre nengoan. Hasiera batean uste nuen Luluagarekin ariko nintzela, baina berak ez zuen nahi eta orain Justo Lillorekin nago. **Gustura al zaude itzulerarekin?**

Bai, oso gustura, biak ere oso animatuta gaude. Lehenagotik

ez nuen ezagutzen Justo, eta kezka hori banuen, baina azkenean oso ondo, oso gustura. **Bi urte igaro dira Tolosa entrenatzeari utzi zenionetik, asko aldatu al da?**

Ez dut uste asko aldatu denik, nik gainera, lehen egon zena berreskuratu nahi dut. Denak talde bat izatea nahi dut. Nire ustez oso garrantzitsua da, eta gehiago maila honetan. Ez gara profesionalak eta denak batera joan beharra daukagu. Bestearrekin emaitza txarrak izan dituzte eta jendea moralki jaitsi egin da. Jendeak esandakoaren arabera, profesionalgi entrenatzen zuten. Gu berriz umilago goaz, eta beraiekin harreman gehiago daukagu, taldeko beste bat gara. Lehen

ere berdín egin genuen, eta niri gehiago gustatzen zait taldearekin egotea.

Animo aldetik-eta zer moduz ikusten duzu taldea?

Jendea nahiko etsita eta kezkatuta dago. Aurreko entrenatzailea joan delako-eta jendea kezkatuta dago, eta horri buelta eman beharra daukagu.

Fisikoki berriz nola ikusten dituzu?

Fisikoki ondo daude, baina egoera ez da ona. Nahi eta ezin gabilta. Entrenamenduetan nik kalitate handia ikusten dut, baina partidara iristen gara eta aukera asko galtzen ditugu. Normalak ez diren gauzak gertatzen dira. Trabatuta dago taldea, eta gehiago eman dezake.



INGO ASENSIO

dago, baina egoera delikatu daude infantilak. Dagoenekin tira beharko dugu.

Denboraldiko ondorengo partidak nola ikusten dituzu?

Itzuleratik bitartekoak zailak izango dira. Baina beno, atera daude. Aurreko partiduan galdu bagenuen ere aukerak izan genituen, eta horri begiratu beharra dago.

Aldaketak egiteko asmorik ba al duzu?

Ni lehenengo erara noa, aurreko jendearekin jarraituko dut. Hala ere, badago jende berria, eta denak nahastuz zerbait egin daiteke, baina beno, bide batetik joanda.

Partidak ikustera ere gero eta zailtu gubadago joaten dira...

Jendeak babes gehiago eman behar diola taldeari uste dut. Larunbatean ere jende gutxi joan zen partida ikustera. Jokalariak ahal duten guztia ematen ari dira, eta astean lau aldiz entrenatzaera etortzen dira.

hitza

Harpidedunen txokoa

Egin zaitez harpidedun!

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

honetik
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Avalon
osagaia k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

MUGAR
Nafarroa etorb., 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
ONINAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

SASKIBALOIA ▶

«Meritu handiko» garaipena Tolosa Aralar taldeko mutilek

Baja ugari izan arren uste baino alde handiagoarekin hartu zuten mendean Kraft Atletiko Sn. Sn. taldea; hurrengo partida C.B. Calahorraren aurkakoa izango da

ERREDAKZIOA

«Sei jokalarik eta erdirekin» lortu zuten garaipena iragan larunbatean Tolosa Aralar-eko mutilek Kraft Atletiko Sn. Sn. indarberrituaren aurkako derbyan. 83-60ko emaitzarekin amaitsu zen partida.

«Beldur handiz» aurkeztu ziren tolosarrak partidara. Izan ere, «Eguberritako atsedendia onerako izan ordez txar-rako izan zela zirudien, atsedena hartu eta lesionatuak berreskuratzeko baliatu ordez, ostiralean taldeak ageri zuten itxura benetan kezagarria baitzen». Denboraldi hasieran taldea 12 jokalariz osatuta zegoela kontutan hartuz, Unairen lesio larriak 11 jokalarirekin utzi zituen denboraldi amaierara arte. Eguberrietatik bueltan Goar-en bizkarreko minak zertxobait hobetu ziren eta jokatze prest agertu zen, baina horren ordez Iñigo eta Martia lesio desberdinekin agertu ziren ostiraleko entrenamendura. Entrenamenduan bertan, Josebak orkatila bihurritu zuen eta aste batzutarako baja izango da. Gainera, Kaiet-ek lanera joan behar izan zuen eta taldea 7 jokalarirekin aurkeztu zen larunbatean. Halere, Iñigo



Tolosa Aralar taldeko jokalaria. HITZA

ARALAR ▶ 83 KRAFT ATLETIKO ▶ 60

Partzialak. 18-11; 37-32; 61-40; 83-60.

Tolosa Aralar. (18+19+24+22). Hasierako bostekoa: Kike (22), Mikel Txiki (11), Goar (0), Fernando (21), Haritz (15). Aldaketak: Alberto (0) eta Ion (14).

Kraft Atletiko Sn. Sn. (11+21+8+20). Hasierako bostekoa: Iruretagoiena (6), Sanz (6), Santamaria (10), Lopez (7), Croituru (11). Aldaketak: Ramirez (3), Fernandez (2), EliceGUI (13), Campo (2) eta Castro.

eta Martia aulkian izan ziren badaezpada ere.

Denboraldiko hirugarren derby-a zuten jokoan Donostiako Kraft Atletiko Sn. Sn. taldearen aurka. Hauek azken bi partidak irabaziak zituzten Sallako eta Universidad de la Riojaren aurka. «Behetik gora ze-

torren taldea, beraz, panorama ez zen oso itxaropentsua».

Dena den, partida hasiera nahiko ona izan zen. Intentsitate handia jarri zuten tolosarrek eta 0-2koa izan zen kanpotarrak aurretik egon ziren une bakarra. 10-0eko partzial batekin 12-5 erakusten zuen mar-

kagailuak eta donostiarrak ez ziren gauza izan markagailu honi buelta emateko.

Bigarren laurdena parekatuagoa izan zen. Kanpotarrek zuten guztia eman zuten laurden honetan eta horri esker bi puntugatik irabazi zuten partziala, atsedendira 37-32 joanez. Hirugarren laurdenak erabakita utzi zuen partida. 10 minutu hauetan 24-8koa izan zen partziala, eta azken laurdenaren hasierara 21 puntuko errentaz iristea ekarri zuen. 47-40an 14-0eko partzial batek 61-40a ekarri zuen markagailura. Laurden honetan Goar-ek kolpe bat jaso zuen belaunean eta ezin izan zuen gehiago jokatatu. Azken laurdena aldeak mantentzeko bakarrik izan zen. Etxekoek ez zuten aldaketak egiteko aukera askorik eta Fernando eta Ionek lau faltarekin amaitsu zuten partida. «Uste baino alde handiagoarekin» amaitsu zuten azkenean partida, 83 eta 60ko emaitzarekin.

Hurrengo asteko partidari dagokionez, «norgehiagok zaila» izango dute sailkapenean bosgarren den Errioxako C.B. Calahorraren taldearen aurkakoa, hain zuzen. Partida larunbatean izango da, 18:00etan, Calahorraren bertan.

XAKEA ▶

Hasiera ona eskualdekoek Gipuzkoako Taldekakoan

2,5 eta 1,5 irabazi zuten Tolosako eta Ibarako Xake elkarteak jokalariek

ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean Gipuzkoako Taldekako Liga hasi zen. Iaz bezela aurten ere Tolosako eta Ibarako Xake elkarteek bi talde bateratu atera dituzte beraien jokalariekin, lehenengo mailan eta bigarren hirugarren mailan. Hasiera ona izan zuten bi taldeek, 2,5-1,5 irabazi baitzuten biek.

A taldeak Astigarragako Mundarroi taldea izan zuten aurkari. Aurreko denboraldian mailaz igotzea lortu eta gero, Mundarroi talde sendoa osatu dute aurtengorako. Gehiago izan ziren ordea eskualdekoak. Etxeberria izan zen puntua lortzen lehena. Lehendabizi aurkariaren eraso lotu eta ondoren taulako erdialdean manioiratuz «bikain» puskatu zuten haren defentsa. J. Mujika izan zen hurrena. Abantaila garbia lortu zuen hasieratik eta erraz irabaziko zuela zirudien baina akats larri batek partida kolokan utzi zuen. Aurkariak, ordea, «makal» jokatu zuen eta Ibarakoak puntu osoa eskuratu ahal izan zuen. Taldearen beste puntu erdia X. Mujikak lortu zuen. Partida bide onetik eman arren ez zuten errematea ematen jakin eta azkenean sufriztea tokatu zitzaion.

B taldeak Azkoitiako Anaitasuna-Kakuteran bisita jaso zuen. Etxenikak lortu zuten etxekoen lehen puntua. Lehen jokaldietan ez zuen oso fin jokatu, baina bere trebezia onenak martxan jarri eta lehenik posizioa berdindu, ondoren abantaila lortu, eta azkenean garaipen («ezin hobea») lortu zuen. Mendiaren berdinketa etorri zen segidan. Partida hobeto eman zuen denbora guztian baina ez zuten azken zatian asmatu eta galtzeko zorian ere ibili zen. I. Etxeberriak lortu zuen azkeneko puntua. Hirugarren mailako Banakako Txapelketa («nahi bezela») irabazi ostean, «sasoi puntu onean jarraitzen duela erakutsi zuen».

ARETO FUTBOLA ▶

1-1eko berdinketa erdietsi du Laskorainek Lezoko Allerruren aurka

Parekatua eta borrokatua izan zen partida; bosgarren dira Ikastolakoak sailkapenean

ERREDAKZIOA

Lezoko Allerru taldearen aurkako derbya jokatu zuen larunbatean, Usabalen Laskorain taldeak, eta «berrogei minutu parekatu eta borrokatu ostean» berdinketarekin konformatu beharra izan zuten.

Partida ez zen joku bikain ala ikusgarrikoa izan. Lehen er-

dian Lezoarrak izan ziren nagusi, eta, batez ere, eraso posizionalean erabili zuten 2-2koak, kanpoko jaurtitzailerekin lagunduta, min handia egin zion Ikastolako taldeari. Hala ere, gol aukera argiak ez ziren gehiegi ikusi eta ikusitakoak bi ateetan banatu ziren, inor ez zelarik gai izan golik sartzeko. Markagailua hutsean zela iritsi ziren bada atsedendira.

Bigarren zatian, Laskoraingoak «indartsuago» kantsuatu ziren, eta parekotasuna erabatekoa suertatu zen. Estreinala gola sartzen asmatzea zuten jomuga bi taldeek, hiru puntuak poltsikoratzeko urrats erabakiorra baitzirudien, baina atzealdean trinkotasuna ez zen deskuidatu behar inolaz ere.

Amailerako lau minuturen faltan, tolosarrak izan ziren gola sartzen lehenak, Joseba Gil-en eskutik —bere hamargarrena denboraldian—, baina horitxoentzat eragozpenak ez ziren desagertu golaren aurretik jada bost faltarekin baitziren. Eta bi minutu beranduago, seigarren falta adierazi zuten epailek eta lezoarrek ez zuten hutsik egin hamar metroatik; 1-1ekoa izan zen. Egizabal en-

trenatzaileak Domentxe, Alonso, Saldias, Telletxea eta Gil atera zituen partidaren hasieran, eta aldaketekin, Yustos, Barriola, Amatriain, Altuna eta Arregik ere jokatu zuten.

Partidaren ostean, puntu bat gehiago, beraz, Laskorain taldearentzat. Puntu horrekin bosgarren dira sailkapen nagusian, laugarrenarekin berdinduta.

Kirol Elkarteak beste taldeei dagokionean, Jorge Alonso Mourinhok zuzentzen duen mutilen filialak 8 eta 1 irabazi zion Tribuna Norte donostiarrari. Prados eta Jorge Ballesterosen neskek berriz, ezin izan zuten Altxakoak liderrarekin, eta 2 eta 9 galdu zuten. Bai mutilen filiala, bai nesken taldea, bigarren sailkatuta doaz txapelketan.

VILLABONA ▶ EKONOMIA



Santiago egoitza Villabonako Larrea auzoan dago. I. GARCIA

Greba mugagabea egitea erabaki dute Santiago egoitzan

Hilaren 29an hasiko litzateke; lan-itunaren negoziazioan «adostutakoa enpresak ez betetzea» salatu dute langileek

IMANOL GARCIA

Villabonako Santiago egoitza-ko langileek mugagabe greba egitea erabaki dute. «Suman S.L. enpresak adostutako akordioak betetzen ez dituzenez». Hilaren 29tik aurrera ekingo liokete greba horri. ELA sindikatuko Gizalan federazio-ko Ori-Goierriko arduraduna den Joseba Iturbek adierazi duenez, langileen eta enpresaren ituna «sei hilabetez negoziatzen egon eta akordio batera iritsi ondoren, dena prest zegoen itunaren sinadurarako. Bi gauzatxori bakarrik» zeuden enpresak erantzuna emateko. Erantzuna ematerakoan, «aurretik adosturik genuen hainbat gai garrantzitsuetan

atzera egin du». Iturbek esan duenez, «enpresaren jarrera erabat onartezina da».

ELAko ordezkariak gogorazi nahi izan du, enpresa ituna berriro negoziatzera «ukatzeko zela» eta greba deialdi bat egin ondoren «bakarrik onartu zuela ituna negoziatzea». Akordioak «errespetatzeko direla» eta jarrera horrekin enpresak duen «seriotasun eza» salatu du ELAko ordezkariak. Grebak «Suman S.L.ek akordioak errespetatu eta sinatu bitartean iraungo du», Iturbek esanetan.

Iñaki Garcia Suman S.L.ko Gipuzkoako ordezkariak azaldu duenez, «harriritu gaude greba deialdiarekin. Oraindik ez dugu jakinarazpen ofizialik

jaso». Gai garrantzitsuetan, «soldata, lanorduak eta aldi baterako ezintasunean», akordio batera iritsi zirela eta garrantzi gutxiago gai batzuk «falta zirela adosteko» azaldu du Garciak. Langileen erabakiaren berri izaterakoan bilera batera deitu zituela dio enpresako ordezkariak. «Ez zen inor azaldu», esan du. Enpresa («elkarrizketarako prest» dagoela azaldu du Garciak.

Guztira 24 langile daude Santiago egoitzan. Adineko jendea dago bertan. 32 pertsonentzako lekua du eta beste lau toki eguneko zentrorako. Greba gauzatzen bada, gutxieneko zerbitzuak egongo lirarteke, baina oraindik ez daude zehaztuta.

iragarki laburrak ▶

LANA
Gidaria. Egurretan ibiltzeko gidaria behar da. 626 71 46 96.
Banatzaila. Baserriko produktuak banatzeko banatzaile bat behar da. 943 68 22 14.
Elektrikaria. Elektrikari bat behar da Villabona inguruan, industriarlan egiteko. 629 53 40 50.
Zerbitzaria. Zerbitzari bat behar dugu larunbata arratsalderako eta igande goizerako. Interesaturik deitu 650 04 31 39 zenbakira.

Kitarra-jolea. Erromeri talde batek kitarra-jolea behar du. Deitu 665 70 17 75 zenbakira.

SALGAI
Sutarako egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Ebera entregatzen dira. 615 75 57 62.
Autoa. BMW M3a salgai. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18ko llantak eta sapaia. Egoera oso onean. 14.000 euro. 943 65 41 43.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkestak. Sagardotegiei buruzko bi inkesta daude webgunean, zure iritzia jasotzeko zain. Jatetxe horietara joateko ohitura al duzu? Zer iruditzen zaizu sagardotegietako menuaren salneurria? Sartu webgunean eta beste hainbat inkestetan eta eztabaidetan zure iritzia eman ahal izango duzu.

ANOETA ▶ TEKNOLOGIA

Astehenean seinale analogikoa etengo dute

Hilaren 22a eta 25a bitartean errepikagailu digitala jartzeko lanak egingo dituzte

ERREDAKZIOA

Hilaren 22tik aurrera telebista seinale analogikoari etena emango diote errepikagailu digitala ezarri ahal izateko. Errepikagailu berria ezartze-ko hiru egun beharrezkoak izango dira eta hilaren 25ean seinale digitala herri gutzirako igorriko da.

Egun horretarako, telebista digitala ez dutenek, telebista ikusi ahal izateko, komunitate-ko antena prestatu egin behar dute eta etxeko telebistetei dekodifikatzaile digitala gehitu.

Anoetako Udalak bando bat onartu du bertan errepikagailu aldaketa gauzatuko duten eguna eta migrazio edo aldaketa prozesua jakinaraziz. Errepikagailu analogikoa hilaren 22an aldatuko dute, beraz egun horretatik aurrera eta behin betirako ez da seinale analogikorik igorriko.

Errepikagailu analogikoa aldatzeko eta digitala ezartze-

ko hiru egun beharrezkoak izango dira. Dena dela egun horietan zehar seinale digitala huts batzuekin ikusi ahal izango da. Anoetako Udalak hilaren 24ean bando bat kaleratuko du eta herritarrei jakinaraziko zaie zeintzuk diren seinale digitala ematen duten kanalak.

Azken aldia Anoetako inguruneari seinale banaketa ematen dion errepikagailuak huts egite ugari pairatzen zituena eta gabezia hauek Udalarri behin baino gehiagotan jakinarazi zaizkio. Etxebizitza, areto, taberna... askotan irudi eta soinu harreraren arazoak izan dira eta Anoetako Udalak egoera honi konponbidea eman nahi dio. Sistema berriaren ezarpen lanak amaitu eta gero eta kanalen ajustea egin ondoren telebista digitalak eskaintzen dituen kate guztiak ikusi ahal izango dira. Horretarako telebista aparailu digitala edota dekodifikatzaile izatea ezinbestekoa da.

IRURA ▶

Haur eskolan izen-ematea zabalik

Iurako haur eskolan izena emateko epea zabalik dago. Interesa dutenek hilaren 24ra arte dute aukera. 0 eta 2 urteko haurrak matrikulatzeko aukera dago. Matrikula egiteko haur eskolara joan beharra dago eta San Miguel plazan du helbidea.

ANOETA ▶

Dantza-sokaren entsegu orokorra egingo dute bihar

Kaldereroen egunean egingo den dantza-sokaren pres-taketarekin aurrera jarraitzen dute Anoetan. Eguberriaren aurretik entseguak egiten hasi ziren, axeridantza ez zekitenek ikas zezaten. Bihar, entsegu orokorra egingo dute Edurkan, 19:30ean. 95 bat lagunek eman du izena aurtan dantza-soka egiteko. Antolatzaileen esanetan, «horrenbeste izanda, garrantzitsua da entsegu orokorrera denak etortzea, parte-hartzaileen zere-ndak konfirmatzeko, egun osoan egingo diren ekitaldietan zerbateko taldea izango garen jakiteko».

ANOETA ▶

Antzerki ikastaroa LH1etik aurrerakoentzat

Anoetako Udalak antzerki ikastaroa antolatu du LH1etik aurrerako ikasleei zuzenduta. Hilaren 22tik Aste Santura arte dago aurreikusita ikastaroaren iraupena. Data horren ondoren jarraitzeko aukera egongo da. Izena ematen dutenei deituko zaie bilera batera, eguna eta ordua finkatzeko. Prezioa 40 eurokoa izango da eta Udalak kontu korrontetik kobratuko die partaideei ikastaroa hasi ondoren. Murrizpenak egongo dira gazte txartela dutenentzat, famili ugariaren kartila dutenentzat eta diru-sarrerara baxuak dituztenentzat.

IMANOL ALTUNA ▶ ERREMONTISTA

«Guk ez genuen maila eman, eta aurkariek izugarri jokatu zuten»

Faustino Binakako Erremonte Txapelketan 40-24 galdu arren, amezketarrak ez du beste final batean jokatzeko aukerarik bazterten

NEREA URBIZU

Joan den larunbatean Faustino Binakako Erremonte Txapelketan Altuna I. amezketarrak Urrutiarekin batera finala jokatu zuen. 40-24 galdu zuten, baina Imanol Altunak ez du hurrengo Faustino Txapelketan parte hartzeko aukerarik baztertu.

Zer moduz sentitzen zara?

Beno, zaporre garratza geratu zait, arantza bat daukat sartuta, baina pasa da eta aurrera egin behar da.

Nola ikusi zenuen zure burua Galarretan?

Egia esan gaizki, ni behintzat gaizki ibili nintzen. Hasi ondo hasi ginen, baina besteak ere jokatzeko hasi ziren eta aurrera egin nintzen. Egun txarra izan nuen.

Ez zenuen dakizun guztia erakutsi.

Hori da. Partida txarra egin nuen. Ezin zaie Ezkurrari eta San Migueleri meritua kendu, oso ongi jokatu zutelako, baina nik ez nuen maila onik eman.

Zuen hutsak, edo aurkarien joko ona?

Dena pixka bat. Guk ez genuen maila eman, eta Ezkurrak eta San Miguelek izugarri jolastu zuten. Beti gertatzen da; bikote batek ondo jokatzeko duenean beste bikotearen ahultasunak nabarmenago geratzen dira. Partida handia egin zuten, dena atera zitzaion ongi. Nire kasuan, normalean baino okerrago jokatu nuen.

Eta Urrutia atzelaria?



MAURIZIO OLITE

Urrutia ere dominatuta zegoen. Sake batzuetan ez zen ongi sartu, baina ezinean ondo jokatu zuen.

Ikusle asko izan zen zure alde ere...

Bai. Pena horrekin gelditu naiz. Aurkariei ez dago meritorik kentzerik, lehen ere esan dut. Baina, jende asko joan zen Amezketatik eta lantokitik ere bai, eta jende hori ilusio handiekin joan zen ikustera, finala irabaztea nahi dute ere, noski, eta ez zuten hori ikusi: hauek ere zaporre txarrekin gertatzen dira.

Garikoitz Altuna anaia zer-bait esan al dizu?

Han egon zen partida ikusten, eta nire partidaren ondoren, berak jokatu zuen. Ez zidan ezer esan, ezta saiatu ere: bakoitzak badaki nola jokatu duen eta ez da askotan ezer esan beharrik. Elkarrekin afaldu genuen eta parranda egin genuen.

Gaur beste neurketa bat duzu.

Bai, eta hobe horrela. Egunerokoarekin jarraitzea nahiago dut, hori da onena. Ez du aparteko garrantzirik, baina urtean zehar maila ona erakutsi behar da finaletan aritzeko. San Miguelek jokatu du Galarreta pilotalekuan, 16:00etatik aurrera. Gaurkoan Juaristi eta Eizaguireren aurka jokatu du. Azkenean beti berdintsuak gabiltza: hamabi jokalaririk inguru gara, familia bat bezala, eta denok jokatzeko dugu denekin.

PILOTA ▶

Eskualdeko bi emakume finalerako bidean

ERREDAKZIOA

Garazi Jauregi eta Nagore Arozena lizartzarra Emakumea Pilotari Txapelketako finalean izango dira. Hauen aurkaria zein bikote izango den ezin da jakin, 2. eta 3. postuan sailkatutako bikoteen artean finalerdia jokatu beharko baitute.

Hirugarren postuan Eluska Arrondo eta Mainer Mendizabal anoetarra sailkatu dira. Azken jardunaldian bikote honek Zabala-Argainen aurka galdu zuten, baina finalean egoteko aukerak dituzte.

ALEGIA ▶

Intxurrekoak ia ezin hobe asteburu honetan

N. URBIZU

Alegiko futbol eta areto futbol taldekoek jardunaldi oso ona egin dute; lau taldeetatik hiruk irabazi eta batek berdinketa lortu du. Neskek MCM taldearen kontra 8 gol sartu zituzten, eta besteek bat.

Lurraldekoak bina egin zuten Axularren kontra, kadetdeek igoera mailan Usurbilekin 2 gol sartu zituzten, eta jubenilek 1-0 irabazi zuten Elgoibarren kontra.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behean
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ernio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Anoeta. Duela gutxiko eraikuntzan duplexa salgai. Garaje itxia aukeran. Oso egoera onean.

Amezketak, Berastegi, Hernialde, Tolosa eta Zizurkil. Hainbat etxe bifamiliar eta abiki, eraikuntza berrikoak eta bigarren eskukoak.

Berrobi. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta bi trasteleku. Igogailua jartzeko proiektuarekin.

Ibarra. San Inazio. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan.

Berokuntzarekin.
Ibarra. Euskalerrria kalea. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Oso egoera onean.

Irura. Etxezarreta. 3 logela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Garajea aukeran.

Legorreta. Trasteleku salmentan. Bizikleta edo motorrak gordetzeko egokia.

Tolosa. Berazubi. Igogailu proiektua onartuta. 228.384 euro.

Tolosa. Eraikuntza berriko hainbat etxebizitza salgai. Bi, hiru eta lau logela aukeran. Garajeekin.

Tolosa. Beotibar. 36 m². Altua, 150.000 euro.

Tolosa. Zumalakarregi. 92 m². 3 logela, 2 bainugela. Gutziz bertututa eta estreinatzeko. Garajearekin.

Tolosa. Zumalakarregi. 98 m²ko pisu zoragarria salgai. Ikuspegi ezin hobeak. Estreinatzeko. Garajea aukeran.

Tolosa. La Estrella. Etxebizitza salgai oso egoera onean. Igogailuarekin eta garajearekin.

Tolosa. Pedro de Tolosa. 83 m². Distribuzio era ezberdinak. Garajea aukeran.

Tolosa. San Frantzisko. 46 m²ko apartamentu berritua salgai. Igogailu, berokuntza eta garajearekin.

Tolosa. Pedro de Tolosa. 125 m²ko pisua salgai. Egoera oso ona. Garajea aukeran.

Tolosa. SAM. Iskineko etxe abikia salgai. Porxe eta guzti dauka.

Tolosa. Erabat akondizionatutako 120m²ko lokal-bulegoa alokatzen da. Zonalde bikaina. Egoera ezin hobe. Oso argitsua eta leiho handiekin. Aire girotua.

Egokia edozein bulegorako, mediku kontsultarako, delegazioentzat...

Zizurkil. Etxe abikia salgai. Terrazarekin eta lorategiarekin.

Ezin hobeto. Orientazio bikainarekin.

Hernani. Akarregi. Errepidearen aldamenean. 385 m² dituen pabiloi industrialria salgai. Estreinatzeko.

BERROBI ▶

Ikastaro berriak datozen hilabeteetan

ERREDAKZIOA

Berrobiko Udalak antolatuta eta Kutzak lagunduta ikastaro berriak abian dira herrian. Bi ikastaro egingo dituzte, batetik euskal dantzak, bestetik, berriz, eskulanak. Euskal dantzak asteartetan izango dira 20:00etatik 21:30era. Guztira 21 orduko ikastaroa izango da, otsailaren 6an hasi eta maiatzaren 29a bitarte. Prezioa, berriz, 40 eurokoa izango da.

Eskularen ikastaroa astelehenetan izango da 10:00etatik 12:00etara, otsailaren 5ean hasi eta abenduaren 10era arte eta ikastaroaren prezioa, 103 eurokoa izango da. Ikastaroetan izena emateko 943 68 32 94 telefono zenbakira deitu behar da. Gogoratu, epea urtarrilaren 23an amaitzen dela.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amarozk dispens.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ **DYA:** 672536
- ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

▶ **Garraioak.**

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ **Taxia:** 670420
- ▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

▶ **Besterik.**

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

IBARRA ▶ KULTURA



896a Alurreko zozketako irabazlea

M.Soroa ▶ Laugarren urtez Alurr bultzatzeko sorturiko Gabonetako zozketak badu garailea. 896a izan da zerbaki irabazlea eta sariduna, berriz, Fermina San Sebastian tolosarra. Hiloba duen Alurreko dantzariari erosi zion txartela eta guztira 1.000 zerbaki salgai jarri baziren ere, berak bakarrik lortu du saria. 420 euro edo Ramon Garciak diseinaturiko bi jantziren artean aukeratu ahal izan du San Sebastianek eta orain arte gertatu den ez bezala dirua izan da irabazleak aukeratu duena. **M.S.**

IBARRA ▶ FUTBOLA

ERREDAKZIOA

Denboraldiko joaneko azken partidaren ez zuen garaipenik lortzerik izan Ibarrek, 6-5ekoarekin etxeratu baitzen taldea. Taldekideek adierazi dutenaren arabera arbitroek «lan lotsagarria egin zuten eta ez zuten kategoria honek beharko lukeen maila eman». Gauzak horrela, «etsipena» nabaria zen Ibarra-koen aurpegieta.

Norgehiagoka hasieran ibartarrak ziren nagusi, 3 minutuan Lander Camiak 0-1ekoa marraztu zuelarik markagailuan. Lau minutu beranduago, David Pradosek bigarren gola eman zion taldeari jokaldi eder baten ondoren. Irurtzungo Xota taldea partida berdintzen hasi zen orduan, berehala 2-2koa ezarri zuelarik markagailuan. Hala, bigarren zatian erabakiko zen guztia.

Indartsu zelairatu ziren nafarrrak, Ibarra-ko atean jokaldiak egiten hasi zirelarik jarraian. Igor Zabalo Ibarra-ko atezainak ondo erantzun zien eraso andanari, 24. minutuan, ordea, ezin izan zuen 3-2koa gelditu. Asko presionatzen hasi zen Irurtzun eta partida zailtzen hasi zitzaizen ibartarrei. Ez zuten etsi, ordea, eta bi taldeak ere garaipenaren bila abiatu ziren burubelarri.

Nafarrrak lehenik eta ibartarrak ondoren, golak sartuz joan ziren 3-2tik 5-5ekoarekin arte. Partida amaitzeko minutu bakarra falta zenean 5-5eko berdinketa ikus zitekeen markagailuan. Norgehiagoka bere horretan amaituko zela zirudienean, ordea, epaileek «hasiera eman zioten zirkoari», Unai Labakari eginiako falta

6-5eko emaitzarekin etxeratu da Ibarra azken partidatik

Arbitroen lan «lotsagarria» salatu du taldeak, baina «kategoriak eskatzen duen maila bete ez dutela ere»



Ibarrek etxean jokaturiko partida bateko artiboko irudia. **MADDI SOROJA**

garbia pasatzen utzi baitzuten. Une horretan, nafarrek egoerari probetxua ateraz 6-5ekoarekin garaipena eskuratu zuten.

▶ **Bueltkoak dator orain**

Joan den larunbatean Irurtzunen jokaturiko partidarekin amaitu da denboraldiko joaneko partidaren zerranda. Guztira 15 partida izan dira eta horie-

tatik soilik lau izan dira Ibarrek galdu dituenak. Zortzi partida irabazi ditu taldeak eta hiru izan dira berdindutakoak.

Sailkapen orokorrari begiratu gero, laugarren postuan da Ibarra 27 punturekin. Lehen postuan Logroño dago 40 punturekin eta atzetik, Pajarin eta Gernika ditu, 33 eta 29 punturekin, hurrenez hurren. Gol kopuruari erreparatu gero, den-

boraldi erdi honetan, 55 gol sartu dituzte ibartarrek. Aurkariak, berriz, 43 gol sartu dizkiete ibartarrei, golik gutxien jaso duen bigarren taldea delarik Pajarinen atzetik.

Ondo eginak mantendu eta gaizki eginak zuzentzea besterik ez du Ibarrek, talde liderra 13 puntura izanik ere asko dago eta oraindik egiteko bueltako beste 15 partidetan.

LEITZA ▶ FUTBOLA

Aurrerak sasoi betean dagoela erakutsi du 3-0 irabazi ondoren

Zenbait jokalarik bajaran jarraitzen duten arren, gazteen taldeko bi lagunek jokatu eta maila handia erakutsi zuten



Aurrera futbol taldeko partida bat. J. ASTIBIA

NAIARA GARZIA

Aurrerak ederki hasi du denboraldiko igoera fasea, bigarren partida ere irabazi egin baitu. Herenegun Infanzonesen aurka gailendu zen Arkixkilen, 0-3ko emaitzarekin.

Bidezarraren aurka irabazi ondoren, igandeko partidak ere ez dio hutsik egin Aurrerari. Obanosko jokalariek eta leitzarrak parekatu xamar hasi ziren arren, «Aurrerak joko gehixeago egin zuen», arduradunek azaldu duten bezala. Aurrerako zenbait jokalarik bajaran jarraitzen dutenez, gazteen mailako bi jokalarik jokatu zuten hauen ordez. «Befiat eta Unaiek maila handia eman zuten igandean», dio Aurrerako arduradunetako batek.

Lehenengo zatian De Carlosek estreinatu zuen markagailua, falta jaurtiketan gola sartuz. «Bigarren zatian nagusi ginen heinean, aukerak aprobetxatu eta beste bi gol sartu genituen». Bigarrena, Dani Alvarezek, buruz, eta hirugarrena, Jabi Urtiagak. Bigarren zatian leitzarrak indartzen joan ziren bezala, «Infanzones taldekoak behera egin zuten».

Igandean, gainera, negua izan arren, giro polita egin zuen eta arduradunek esan duten bezala, «jende mordoxka hurbildu zen Arkixkilera».

Aurkariak

Obanosko taldeak ez du Aurrera bezain ongi hasi igoera fasea, aurreneko partida ere

(San Cristobalen aurkakoa) galdu egin baitzuen (1-2). «Guk Infanzones beti talde gogor bat bezala ikusi dugu. Fisikoki oso sendoak dira, eta adinez, gure jokalariek baino zaharragoak». Azkenean, emaitza leitzarren aldekoa izan bada ere, «ez genuen aurrekusi irabazi egingo genuenik. Bigarren zati honetan talde indartsuak daude, eta orain partidak gogorragoak dira».

Hurrengo partida Universidad de Navararren aurka jokatuko dute leitzarrek. Hau ere talde gogorra izan arren, «ez da oso ongi hasi». Lehenengo partida ez zuten jokatu (atzeratu egin da) eta igandekoa 5-1 galdu zuten, aurreko fasean, bere multzoan lehenengoak gelditu ziren arren.

GIZARTEA ▶

Zenbait dirulaguntza jasotzeko deialdia

Onuradunak genero indarkeriako biktimak eta mendekotasuna duten pertsonak dira

ERREDAKZIOA

Cederna-Garalur elkarteak 2007. urteko dirulaguntzen deialdia luzatu du. Genero-indarkeriako biktimak, mendekotasuna duten pertsonak, irabazi asmorik gabeko entitateak... eta beste zenbait dira dirulaguntza horren onuradunak.

Deialdiak Cederna-Garalur elkartearen Europe Direct Informazio Zerbitzuak eman du. Informazio gehiago nahi duenak Leitzako garapen eragile-arengana jo dezala (Elena Irigoien), edo Arantxa Rodriguezekin harremanetan jar dadila, 948 20 70 59 telefono zenbakira deitu. Epeak luze xamarak dira orokorrean, zehazten diren bi kasutan izan ezik. Dirulaguntzak ondoren go hauek dira.

Batetik, genero-indarkeriako biktima diren emakumei zuzendua; betiere baliabide ekonomikorik ez dutela, eta lanpostu bat lortzeko zailtasun bereziak dituztela frogatu behar dute. Deialdi honetako dirulaguntza behin bakarrik eman ahal izanen zaio biktima bakoitzari. Gainera, laguntza hau bateraezina da genero indarkeriako biktima izateagatik eman daitekeen beste edozein laguntzarekin. Honetaz gain, deialdi honetako laguntzak eskatzeko unean zenbait baldintza bete behar dira, 2007ko urtarrilaren 1eko NAOan azaltzen dira. Epea 2007ko abenduaren 31n amaitzen da. Ondorengo helbide elektronikoan ere honen inguruko informazioa jaso daiteke: <http://www.cfnavarra.es/bon/071/F0620001.htm>.

Bestetik, hirugarren adinekoen zuzendutako Bainuetxe

Programaren plazak; horietatik 100 kostu txikikoak izanen dira, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak sustatuta. Dirulaguntza honen eskakizunak egin nahi duenak, betebeharreko baldintzak irakurtzeko ondorengo helbide elektronikoan begira dezala: <http://www.cfnavarra.es/bon/071/F0619534.htm>. NAOan, urtarrilaren 3an argitaratu zuten informazio hau. Epea urtarrilaren 31n amaitzen da.

Bestalde, prebentzioa eta osasuna sustatzeko programak garatzeko, toki entitateei, beste erakundeetara, fundazioetara eta irabazi asmorik gabeko erakundeetara zuzenduta. Informazio hau ere, urtarrilaren 3an argitaratu zuten NAOan, eta <http://www.cfnavarra.es/bon/071/F0619994.htm> helbidean ere eskuragarri dago.

Halaber, mendekotasuna duten pertsonen beren bizilekuan bertan zainketa-zerbitzuak jasotzea lortzeko eta pertsona horiek zaintzen dituzten familiei babesa emateko. Dirulaguntza hau eskatu ahal izateko, aurreko kasuetan bezala, zenbait baldintza betetzea ezinbestekoa da. Baldintza guzti horiek irakurtzeko, abenduaren 29ko NAOa irakurri edo <http://www.cfnavarra.es/bon/06C/F0620002.htm> helbidean ere informazio hori topatzeko aukera izanen da.

Azkenik, gizarteratzearen esparruan aritzen diren irabazi asmorik gabeko entitateei zuzenduta. Urtarrilaren 8an NAOan argitaratu zuten honen inguruko informazioa. Ondorengo helbidean ere eskura daiteke: <http://www.cfnavarra.es/bon/071/F0619599.htm>. Epea urtarrilaren 31n amaitzen da.

hilberria ▶

Karlos Fernandez de Gobeo Arakistain

(Urtarrilaren 13an hil zen istripuz, 30 urte zituela)



Beti gurekin, beti ondoan

Zure lehenegusuek ez zaitugu ahaztuko.
Maite, Itziar, Jexusmai, Maider eta Ainara

ARROA ERREKA, Erremontari baserria, 2007ko urtarrilaren 16a



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik.

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Astelehenero helduentzako klaseak hasiko dituzte. Eskolen helburua lehen ikasitako gauzak gogoratzea eta bi ordu lagunarte on batean igarotzea da. Izen-ematea udaletxeko gizarte zerbitzuetan egin dezakete interesatuek eta HHlko telefono zenbakian: 943 67 26 60.

Ibarra. Ibarra Euskara Zerbitzuak, urte berrian sartu garen honetan, 2007 urteko egutegiak argitaratu ditu nahi duen orok eskuratu ditzan. Interesatuek udaletxean eta Euskara Zerbitzuan jaso ditzakete doan honako ordutegian: 09:00etatik 13:00etara bitarte.

Irura. Udalak Landa-inguruko Etengabeko Ikaskuntza Heziketa Jardueren barruan bi ikastaro hauek eman nahi ditu herrian urtarrean edo otsailan hasita: Euskal sukaldaritza sortzaile berria eta ordenagailu bidezko argazkigintza eta argazki-ukitua. Beraz, adin-nagusiko interesatuek udaletxean, liburutegian edota 943 69 13 33 telefono zenbakira deituz eman dezakete izena. Kultura.irura@udal.gipuzkoa.net helbidera idatziz ere egin dezakete urtarrilaren 19a baino lehen.

Anoeta. Dantza-sokaren entsegu orokorra egingo dute bihar, Edukian, 19:30etik aurrera. Interesatuei joateko deia egin dute antolatzaileek.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Maria Jose Rekalde eskulturagilearen



Gorostidi lantegiko pabilioi zaharra bota dute

TOLOSA ▶ Voith-Gorostidi eremuko etxebizitzak gero eta gertuago daude. Horren adibidea izan zen herenegun goizean Gorostidi lantegiko pabilioi zaharra botatzen aritu ziren makinak. Goiz guztian zehar garabiek eta hondeatzeko makinak buru-belarri egin zuten lan; hori dela eta, kalea itxi zuten. Poliki-poliki tokiko paisaia eraldatzen doa. Bertan zeuden eraikin gehienak desgertarazi zituzte. Egun, Arregi lorategiak eta etxebizitzak bloke bat dira zutik geratzen diren bakarrak. Tolosar askoren itxaropena dira Voith-Gorostidiko eremuko etxebizitzak. Udaberriaren egingo dute zozketa. Udaletik jakitera eman dutenaren arabera. JOXEMI SAIZAR

eskultura erakusketa Aranburun daude ikusgai hila honen 20ra arte (larunbata).

Tolosa. Ana Jesus Ansorena margolari tolosarraren zeramika koadro lanak ikusgai daude, Tolosako Lanbroa tabernan.

ZINEMA

Alegia. Bihar, *Despues de media noche* filma ikusgai izango da, Alegiko Gaztearean, 21:30ean. Italiako Davide Ferraria da zuzendaria.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Oiarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
Goizueta. Apeztebea, L.M. Kale Nagusia, 64. 112. (Leitza eta Aresoko biztanleentzat).

IRRATIA

Txolarre irratria (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskaniak...
18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
20:00-21:00. Goiko eskolatik betti.
21:00-22:00. Izarrak eta ilargia.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tartea **Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberririak...**

jantzi hitza ren jertseak

HITZAren egoitzetan salgai